

1897

Euskal-itz jostaldien Batzarrea

(Euskal-festen XVI-garren urtea)

## IAI, BALEKITE!



Et in terra pax hominibus bonæ  
voluntatis (S. *Luc.* II. 14.)

**Aldeera Oyarzunen irabazitako moldaera**

I

¡Zaudete išillik, gizon argalak!  
Zuen ojuak naukaten miñaz. Eztet  
nai entzun munduko esanik.  
Lurtarrak lurrez jantziak daude,  
¡Lurrez ta griñaz!

Garratzak beti griñaren itzak, Aldi  
askotan gezurrak dira;  
Ta baldin banaiz egizalea,  
Jaso bear det gorontz anima,  
Betiko Urira. <sup>1</sup>

An dago egien iturburua:  
¡Naikua urruti gizonakgandik! An  
dago beti gozotasuna,

(1) Ciudad Eterna.

Andikan datoz ezti tantoak,  
T'egiak andik.

Zaudete išillik.... Sinai mendian  
Moises onari, legea emanaz, Itz  
egin zion Jauna Berbera,  
Aingeru eder baten aotik  
Dakust esanaz:

«Jaunari omen<sup>1</sup> zeru goietan,  
Bera dalako Egille Altsua,  
Eta lureko erbeste-beian,  
Biotz oneko gizon guztiai  
¡Pake dontsua!»

## II

¡Ai! Gaur baletor lur onetara  
Jaungoikoaren mandataria!  
«¿Nun da pakea, esan bezate, onen saria,  
Zeruetatik nik ekarria,  
Gizonarentzat Jaun Egilleak aukeratua?  
Eztet billatzen pakerik emen, ta bai kontrara  
Arrokeriak, etsaitasuna, eta ondamua<sup>2</sup>  
¿Zer da, jenteak, gertatzen dana zuen artean?  
¿Nun dira jaunak eman zituan erakutsiak?  
¿Amaitu ziran biotz oneko gizon guztiak?...»  
Arrazoizko itzak litezke izango, begiratzean  
Munduko gauzak nolatan diran gaurko egunean.  
Ekaitza sortzen dan bezelašen, ustekabean,  
Ala sortzen da guda lurean.  
Ta nola ekaitzak dakarren sarri  
Kanpo ta baratz, lora ta alortan ondamendia,  
Nola datozen arren ondoren, oiuka aizia,  
Zerua beltzik, errekek arro, eta itsasoa  
Bere aserrean ikaragarri;  
Orrela dakar guda makurrak neke gaišto,

(1) Gloria.

(2) Envidia.

Zitalkeria, ikusi eziña, aserretzarra,  
 Gorroto beltza, sua ta garra,  
 Ta luzaroan czin legortu degun negarra.

Gudak gogortzen ditu biotzak,  
 Ekartzen ditu samiñ zorrotzak,  
 Itšutzen ditu gizon argiak,  
 Eta aztu-eragiñ zeruetako erakutsiak.  
 Gudazaleak nai duena da, mendetu etsaia,  
 Ta mendetzea naikua ezatala, susi ta astindu,  
 Jo ta mallatu, ausi ta puska, triska, birrindu<sup>1</sup>  
 ¡Ta itšumenean ezta ezagutzen norbere anaia!

Pozez badago gudalaria,  
 Urrian dabill malkozko aria;  
 Guda gizonak beste gisatan ezin du goza:  
 Ostikopean daukan anaiak atsegintzen du,  
 T'etsai negarrak pozez zoratu;  
 Ta negarretik datorren poza  
 ¡O! Nik eztakit zenbateraño madarikatu!  
 Dunduritzen<sup>2</sup> det guda zuzena, bear danean,  
 Dierrriaren alde izatean,  
 Ta Eleizarentzat mesedezkoa;  
 Bañan oiezaz gañetikoa  
 ¡Eripetzen<sup>3</sup> det nere anima bar-barreanean!

### III

¿Zer dan pakea? ¿Aztu zerate?  
 ¿Pakeagandik urrutietan alzabiltzate?  
 ¿Mait' aldezute gudalarien lanbide okerra?...

Pakea degu gau izartsuko illargi ederra,  
 Baso-mendien išiltasuna,  
 Umanzitšoen auski leüna,  
 Ugeldietan ibaiak duten malsotasuna,  
 Itsasoaren barezko eguna;  
 Bakartadean bizi diranen arren soñua,

(1) **Deshacer.**

(2) **Aplaudir.**

(3) **Condernar.**

Errugabeko ume aingeruen lo-lo gozua,  
 Euskal-artzaien bizimodua,  
 Jauregi zarren orma kondairar untzez jantzia,  
 Ekaitz ondoren agertzen zaigun goiko uztargia,  
 ¡Jaungoikoaren farre-irria!  
 Neke gabeko atsedeen ordu ta naikidea <sup>1</sup>Zeru  
 bidean guk biar degun ¡arnasa artzea! Anima  
 zintzo garbi-garbien bizitz donea, <sup>2</sup>Zerutik  
 Jaunak biraldu zigun karidadea:  
 ¡Oriseñ degu kantari nagon pake maitea!

Pakeak dakartz bere laguntzat,  
 Mayatzak bere lorak bezela,  
 Bedeinkaerak, itz ongariak,  
 Samurtasunak, ta poz berriak;  
 Atsegin bigun animakoak,  
 ¡Mundu onetan billatzen diran ezti tantoak!  
 Manearentzat <sup>3</sup> dauzka tšaloak,  
 Birtutientzat oneresiak, <sup>4</sup>  
 Berak legortzen ditu malkoak,  
 Berak saritzen ditu izerdiak.  
 Paketik dator jakituria,  
 Gizonarentzat onenetako apainduria; Paketik  
 dator duikinde <sup>5</sup> ta sal-erosketa, <sup>6</sup>Lan bide  
 onean irabazten dan ogi pusketa, Soroetako  
 narotasuna,  
 Etšadirako arki bidea,  
 Ganbara zabal arto ta gariz ondo betea,  
 Gutši-geiago denok nai degun diru-ondasuna,  
 Alkarganako maitetasuna, Abegi  
<sup>7</sup> ona, ikusi naia,  
 Adiskideai egiten zaien ¡agur! alaia,  
 Baserritšoan ikusi oi dan pozezko maia,

- (1) Consuelo.  
 (2) Santo, santa.  
 (3) Arte.  
 (4) Bendición.  
 (5) Industria.  
 (6) Comercio.  
 (7) Amabilidad.

¡Berri-onakin biotz barruan daukagun jai!

Paketik dator animarako doai santua,  
Gizon guztiak begira dozen zeru aldera;

Paketik dator ¡zerua bera!

¡Pake zalien beti-betiko bizilekua!

¡Pake gozoa! ¡Zeruko alaba!  
Zure ontasunak, zure gañdiak,<sup>1</sup>

Zure ekarrera osasuntsuak,

Ez ditu ikusi gizon itsuak,

Eta orregatik ¡etzaitu maita!

¡Ai! ¡Balekite mundu guztian zein dezun Aita, Ta  
zure ondoren zuk dakarzuzan mesede andiak!

¡Ezlitzatezke iñola izango gizon erriak

Gaur diran beziñ doaikabe ta errukarriak!

DOMINGO AGIRRE-KOA.



(1) Ventajas.